


© Hitzontzi ©

Literatura sorkuntza
HIRU LAPURRAK



Mikel Valverde. BBK Agenda

Piarres, Manex eta Joanes, lapurrak izan arren, ez ziren parte txarrekoak. Ez zuten inor hiltzen; ez zioten inori eraso egiten. Soil-soilik oilategietan egiten zuten sartu-irtenen bat edo beste, edota upeltegietan, edota mandioetan. Baina zer lapurturik ez zegoenean, ez baitziren geldi egonean egotekoak, beti edukitzen zuten zerbait esku artean.

Egun batez, basoan, Piarresek zuhaitz punta

batean habia bat begiztatu zuen, eta habian txori bat. Han arrautzaren bat egongo zelakoan, lagunei galdegin zien:

—Zuetako nor da gai habiako arrautzak txoria konturatu gabe hartzeko?

Piarres, kattagorri baten antzera igotzen hasi zen, isil-gordeka, eta zuhaitz puntara heldu aurretik, habian zulo txo bat egin, eta arrautzak bere eskura jauzi ziren, habiako txoria ezertaz kontu-

ratu ez zela. Gero habiako zulutxoak goroldioz estali, eta pozaren pozez jaitsi zen lagun harrituengana.

—Zuetako nor da gai habian arrautzak txoria konturatu gabe berriro ipintzeko?

Orduan Manex hasi zen zuhaitzera igotzen, eta Piarres atzetik. Laster, txoria konturatu gabe habian arrautzak ipintzen ari zela, Piarres, azpitik, frakak erazten hasi zitzaion. Irriz karkailaka, Joanesek esan zuen:

—Zinez, ez dago Piarres bezalakorik.

Lapurretan eta matxinokeriatan Piarres eta Manex anaiak bezalakorik ez zegoenez, Joanes lapurrak bere ogibideari utzi behar izan zion.

—Egunen batean kartzelara eramaten bagaituzte, zuei ez, baina niri egingo didate kalte. —Eta zintzotu egin zen guztiz, eta ezkondu, eta galbidea eta arriskuak alde batera utzirik, bizimodu ondratu bati ekin zion.

Egun batez, azoka batean zaldi bat lapurtu ostean, Piarres eta Manex bisitan joan zitzaizkion Joanesi. Nola zebilen galdegin zioten, baina batez ere jakin nahi zuten ea egia zen Joanesek txe-



Mikel Valverde. *Adan y Eva*

rri bat hil berria zuela. Eta izan ere egia zen, zeren Joanesek txerria despentsan baitzeukan, zintzilikatuturik, baina bi lapurrek alde egin bezain laster, Joanesek emazteari esan zion:

—Sukaldera ekarriko dut, eta ohol batez estali, bestela bi alproja hauekin jai dugu...

Hala bada, Joanesek pentsatu bezala, lapurrak gauetz itzuli ziren, eta isilka despentsako horma zulatu, baina ordurako txerria ez zegoen han. Joanesek, hots susmagarriren bat entzunik, ohetik altxatu, eta etxe inguruak miatu zituen, baina ez zuen inor ikusi. Bien bitartean, Piarres ezkutu sartu zen etxera, eta emakumea zegoen ohera inguratuturik, belarrira xuxurlatu zion:

—Aizan, txerria ez zagon despentsan!

—Ez esan txorakeriarik! —erantzun zion emakumeak—. Hik heuk esan duk sukaldean ohol baten azpian gordeko huela-eta!

—Egia! Erdi lo nagon...



Mikel Valverde. *Sanson y Dalila*

↪ Hitzontzi ↪

Eta sukaldera joanik, txerria hartu, eta isil-gordean irten zen etxetik. Gaua pertzaren ipurdia bezain beltza zen, han ez zegoen Manex ikusterik, eta hura adostutako tokian egongo zela pentsatu zuen Piarresek.

Bien bitartean Joanes sartu da etxera, joan da sukaldera eta, ai, ai eta miletan ai!, txerria falta zen, sukaldean eta despentsan!

—Aizan, matxino horiek txerria lapurtu ziguten! —esan emazteari, eta, hankak hankari, lapurren atzetik abiatu zen Joanes gaixoa. Luze gabe harrapatu zuen Piarres, txerria arrastaka zeramala, eta, Manexen ahotsa imitatuz, esan zion:

—Piarres, utzidak txerria eramaten. Honezkerok nekatu haiz!

Piarresek, Manex izango zelakoan, esan zion:

—Ederki. Orain ni aurreratu egingo nauk eta hi etortzen haizenerako sua prestatua izango diat.



Mikel Valverde. *David y Goliat*

Orduan Joanes pozarren itzuli zen etxera txerriarekin.

Manex, azkenik, sua zegoen tokira heldu zenean, Piarresi galdegin zion:

—Lortu al duk txerria?

—Baina ez al daukak ba hik? —galdegin zion harriduraren harriduraz Piarresek.

Bien bitartean, Joanes itzuli zen etxera eta, ez bat eta ez bi, sua piztu, txerria zatikatu, eta hura pertzean prestatzeari ekin zion. Emazteari zuzendu zitzaion gero:

—Gose naun eta hobe dinagu txerria lehenbailehen jan. Bi lapur horiekin onik ez dinagu izango bestela...

Emakumeak txerrikoa pertz batean prestatzen zuen bitartean, Joanes bazter batera joan, eta lo geratu zen. Amesgaiztoak zituen eta noizean behin hasperen egiten zuen, eta zurrunka. Emazteak begiratu zion batean, oharkabea, tximinia-tik makila luze eta puntadun bat jaitsi zen, eta



Mikel Valverde. *La Torre de Babel*

↪ Hitzontzi ↪



Mikel Valverde. *José...*

pertzera sarturik, okel puskarik handienarekin igo. Emazteak gero eta sarriago begiratzzen zion senar larrituari, eta makilak sartu-irten bat baino gehiago egin zuen pertzean. Azkenean, emakumeak senarra esnatzea erabaki zuen:


—Tira, has gaitezen jaten.

Baina sardexka sartu zuelarik, pertza hutsik topatu zuen. Eta senar-emazte etsitu eta gosetuak ohera itzultzekotan zirela, Piarres eta Manex (nor bestela?!) teilatutik jaitsi, eta lapurtutakoa eraman

zieten Joanes eta bere emazte errukarriei. Orduan sekulako festa egin zuten. Jan-edanean eta kantuan aritu ziren, azken aldia balitz bezala, eta hala jarraitu zuten harik eta herrixkako oilarrek kukurrukua jo zuten arte.

—Ohera joateko ordua da —esan zuen azkenik Joanesen emazteak.

Baina orduantxe goardiak etorri, zaldi lapurtuaren bila, eta Piarres eta Manex kartzelara eramantuz zituzten. Eta fini.



(Johann Peter Hebel-en *Cofrecillo de joyas* liburuko ipuin baten bertsioa, Patxi Zubizarretak prestatua.)